



ehbildu

Ioritz  
Berra  
Juaristi

Zaldibiako  
alkategaia

Maite  
duzun  
Zaldibia

EGINGO DUGU.



Hurrengo legegintzaldiari begira ditugun erronkak ez dira makalak. Itxura guztien arabera, hurrengo urteetan aldaketa sakonak eman beharko ditu gure bizimoduak.

Kapitalismoak kalteak, kutsadura, kontsumo ohitura ez jasangarriak eta arazo konplexuak sortu dizkigu, eta ezinbestean, guzti honi aurre egiteko konponbideak ere konplexuak izango dira.

Honen aurrean “baikortasun arduratsuak” gidatu behar ditu gure pausoak. Etorkizun katastrofikorik irudikatu gabe, baina aldaketak egiteko prestutasunez. Eraldaketaren ardura halaber, ez da norbanakoaren bizkar utzi behar. Ezinbestekoak dira herri, eskualde, herrialde eta nazio mailako erabaki eta adostasun zabalak.

Neoliberalismoak bultzatzen duen indibidualismoaren aurrean, komunitatea in-

# EGINGO DUGU.



dartzeko premia aldarrikatzen dugu eta aldaketak kolektibotasunetik erabaki eta egiteko beharra.

Helburu handi hauek betetzeko, Zaldibiako EH Bilduren udal talde berria ez da hutsetik abiatzen. Aurreko taldeen esperientziatik ikasteaz gain, ezkerreko independentismoak herrian izan duen tradizioetik edaten dugu.

*Euskal Errepublikaren nazio  
eraikuntza herrietatik hasi  
behar da eta horretarako  
udalgintza-herrigileak duen  
potentzialaz konsziente izan  
behar gara.*

Betidanik esan izan dugun bezala udala eta oro har instituzioak eskuratzea ez dira gure helburu, baina ezin da gutxietsi mundu hobe bat lortzeko duten baliagarritasuna.

Euskal errepublikaren nazio eraikuntza herrietatik hasi behar da eta horretarako udalgintza-herrigileak duen potentzialaz konsziente izan behar gara.

Freskotasan berriz, baina betiko konpromiso eta determinazioz, aurkezten dugu Zaldibiako Udalerako gure hautagaitza.

**Ioritz Berra Juaristi,**  
**Zaldibiako EH Bilduren alkategaia**



# Gure *taldea*



- 1 Ioritz Berra Juaristi
- 2 Eztitxu Mujika Mariezkurrena
- 3 Maider Castellano Etxeberria
- 4 Xabier Iraeta Mendizabal
- 5 Maialen Mendizabal Luluaga
- 6 Katrin Lizarralde Nazabal
- 7 Rakel Andres Dura
- 8 Peio Olano Azurmendi
- 9 Sergio Dosantos Barrutia
- 10 Nerea Murua Arrese
- 11 Jon Ganzarain Leunda
- 12 Josetxo Matxain Garmendia



ITZULPENA / Traducción

2023-2027 legealdirako Zaldibiko EH Bilduren taldeak badu berritik, badu zaharretik, gaztetik, esperientziatik, freskotasunetik, jakintzatik eta eskarmentutik. Badu kaletik, baserrietik, hemendik eta handik. Badu gorritik, moretik, berdetik, badu koloretik. Eta batez ere, badu ilusiotik, ekimenetik, borondatetik, badu eta asko, konpromisotik.

Udalerako hautagaitzaz gain, baditugu eta osatzen goaz bide-lagunen talde eta sareak. Gurea, esan bezala udalgintza-herrigilea delako, eta garatu nahi duguna Herri Proiektua delako. Duguna jarriz eta falta duguna herri-tar eta eragileekin osatuz aritzera gatoz, herria egiten jarraitzeko.

# Plazatik herrira, eraldaketa hedatuz eta herritarrek ahaldunduz

AZKEN URTEETAN HERRIKO PLAZAN EMAN DEN ERALDAKETAK URRATS BERRIAK EMANGO DITU. EKAINEAN ZEHAZTUKO DA PLAZAKO DISEINU BERRIA PROZESU BERRITZAILE ETA ERALDATZAILE BATEN ONDOREN. BERAZ, DATOZEN URTEETAN DISEINU HORI ERREALITATE BIHURTZEA DUGU ERRONKA. PLAZARA MUGATU GABE, ERALDAKETAK EREMU ASKOTARA ZABALTZEN JARRAITUKO DUGU, BETIERE OINARRI BATEKIN: BIDEA HERRITARREKIN EGITEA, AHALDUNTZEA XEDE.

## HERRIKO PLAZA, SORKUNTZA AUZOLANEAN

Bidea oinez egiten da eta ibilian ibilian ari gara plaza berria izango dena zehazten. Herritarrek elkarrengandik ikasiz hasi genuen bidea, norbere jakintza eta esperientziatik: emakumeak, jubilatua, haurrak, kirolariak...

Unibertsitatean arkitektura ikasketen amaieran dauden ikasleen bisita jaso genuen 2022ko uztail bero hartan eta plazaren eraldaketan amesteko grina piztu ziguten, egurrezko hainbat altzari eraikiz.

Udazkenetik aurrera utopiak amestu eta haiek lurrera ekartzeko lanean murgildu gara. Izan ere, biak dira ezinbestekoak: amestea, eraldaketa abiatzeko lehen urratsa delako. Eta ametsak elkarlanean errealitate bihurtzea, ametsak bizitzeko direlako.

Ekainean arkitektura ikasleak berriro gurean direla zehaztuko da plazako diseinu berria. Beraz, 2023-2027 artean paperean jasotakoa gauzatzeko erronka eta konpromisoa dugu.

Jolaserako, elkarren arteko harremanak bultzatzeko, osasuna eta aktibitatea sustatzeko, zainduak eta zaintzaileak eroso egoteko, kultura egin eta transmititzeko, naturaz gozatzeko, aisialdirako, lanerako, elikatzeko, aldarrikatzeko, eguzkitarako edo euritarako...

Horretarako eta gehiagorako izango den plazaren diseinua izango da, eragile eta herritarren arteko kooperazioan osatua. Legealdi honetako erronka nagusietako bat dugu plazaren eraldaketa egia bihurtzea.



Argazkia: zaldibia.org

## UDALGINTZA-HERRIGILEA: ZER ETA NOLA

Bidea eta helmuga, prozesua eta ekintza, hazia eta uzta... Zer garrantzitsua da, baina nola ere bai. Askotan aipatu dugun arren, EH Bildurentzat udalak ez dira helburua, bidea baizik: amesten dugun eta behar dugun herria eraikitzeko bidea, tresna.

Horregatik, udalgintzan aritzeko gure modua besteengandik desberdina da. Udaleko gure jardunak herria egitea du helburu: herritarrekin batera eta herritarrak ahaldunduz. Ildo honetan urrats berriak ematera goaz, udala eta bere antolaketa eta gaitasun osoa helburu horren norabidean jarritz.

Gizarteak beste norabide bat badarama ere, behetik gorako eraldaketan sinesten dugu, eskuz esku egindako lanean; bakoitzak ahal duenetik, bakoitzak ahal duenean.



Arkitektura ikasleek 2022ko uztaileko egonaldian esku-hartzeko txiki batzuk egin ondoren, plazako diseinu zehatza izango dugu laster. Bertan jasotakoa egikaritzeko konpromisoa dugu.

*Udaleko gure jardunak*

*herria egitea du helburu:*

*herritarrekin batera eta*

*herritarrak ahaldunduz.*

*Ildo horretan urrats berriak*

*ematera goaz.*

# Proiektu zehatzak herritarren bizitzak hobetzeko

Argazkiak: zaldibia.org



---

**Herrigintzaren kultura:  
berreskuratu eta transmititu.  
Iturri zaharreko ur berria.**

---

Herrigintzaren taupada ez da gelditu Zaldibin. Bihotza bizkorrago zebileneko garaiak ere izan ziren eta modu berrietan bada ere, orduko izpiritu eta ekimena berreskuratzea dugu helburu. Asko dira mahai gainera dakarzkigun proiektuak:

- Kimuene Kulturgunearen proiektuan sakonduz adin guztietako herritarrentzat sorkuntza, kultura eta aisialdi tailerrak antolatu eta eskainiko dira, herriko eragileekin elkarlanean.
- Luberriko aretoa ariketa fisikoa egiteko egokituko dugu, kirol-makinez horniturik.
- Euskara eta euskal kulturaren transmisioak ardatz izaten jarraituko dute.

---

**Komunitatea eta zaintza:  
herritarrak erdigunean, elkar  
harreman oparoan**

---

Bizitzaren fase guztietan zeharkatzen gaituzten behar kolektiboak ditugu, baita mendebaldeko gizartea deiturikoaren egiturazko zapalkuntza ugari ere. Pertsonekin lan eginez, pentsamendu eta ekimen kolektiboak sustatzera goaz.

- Zaintzaren demokratizazioa: zaintza unibertsala dugu erronka. Zaintzak ezin du gutxi batzuen ardura izaten jarraitu.
- Herritarren arteko harreman parekideak, anitzak, hezitzaileak eta osasuntsuak sustatuko ditugu, zehar lerrotasuna landuz.
- Proiektu zehatzak lantzen jarraituko dugu herritar eta eragileekin: Herri Hezitzailea, Herri Lagunkoia, Herri Harrera integrala...





### **Bizitza duin eta bizigarriak dituen herria helburu**

Eguneroko bizitzan eragiten diguten gaie-  
tan eragiten jarraituko dugu, eraldaketan  
pausoak emanez. Bizitza merezi duten  
bizitzak eta herria nahi ditugu, eta horre-  
tarako burujabetza da bidea: ura, energia,  
elikadura, hondakinak, etxebizitza, lana,  
ingurumena... herritik eta herriarentzat.



### **Elikadura, lana, ingurumena: lurrak emana, lurrari itzuli**

Gertuko elikagai ekoizleak beharrezko di-  
tugu, baita hauek eta herriko komertzio,  
ostalaritza, jangela kolektiboak eta herrita-  
rrak elkar lotuz garatutako proiektuak ere.  
Goizane Eraikinak eta eskualde mailako  
Biziola proiektuak hartarako eman ditzake-  
ten aukerak baliatuko eta sustatuko ditugu.



### **Ura, energia, basoa, lurra: gure bizitza iturri**

Oinarrizko ditugun gaiak besteen esku  
izateak menpeko egiten gaitu. Gizarte "au-  
rreratu" deituetan, galera handia izan da  
eremu horretan. Zaldibin urari eutsi genion  
eta horretan jarraitzeko determinazio osoa  
dugu. Bide bera jorratzea dagokigu gai-  
nontzeko eremuetan ere.



### **Mugikortasuna eta zerbitzuak: herri biziaren giltzarri**

Gure herrian adin guztietako herritarrak  
egunerokoan kalean ibiltzea nahi dugu.  
Espazioen antolakuntzak, oinezkoei lehen-  
tasuna emateak eta zerbitzu anitzak eskura  
izateak asko lagundu dezakete horretan eta  
badago zer egin. Herritar eta adituekin ba-  
tera herri bizia sustatuko dugu.



# Goierri ere industria politika eraginkorra

EKONOMIAREN TERTZIARIZAZIO PROZESUARI ERANTZUNEZ, EZINBESTEKOA DA GOIERRIRI ONGIZATEA BERMATU DION INDUSTRIA INDARTZEA. ENERGIAN ETA ESKUALDE MAILAKO ARTIKULAZIO ETA PROIEKTU KOOPERATIBOETAN ERE ERAGIN NAHI DUGU.

Goiekiren eta Goierri Valleyren bidez Goierri politikaren industrial ekintzailea egin beharra dugu I+G+B ahalegina handituz; eta beste herri erakundeekin, bultzatzaile rola har dezatela. Horrela lortuko baita aberastasuna sortzen jasangarriak izatea, hura egoki banatzea, kalitateko enpleguari eustea, balio erantsi handiagoko ekoizpen-ehunean kokatzea eta industria eramatea ekonomia karbonogabetu eta zirkularerantz.

Goiekik kluster egituren eragina eta efikazia ebaluatu behar ditu; enpresen errotzea indartu behar du; Erkidegoko industria politiketan eragin behar du; eskualdeko enpresak kudeaketa aurreratura bideratu behar ditu, langileen parte hartzea bermatuz; berrikuntza politikak bultzatu behar ditu (teknologiaz gain, merkaturatzean, diseinuan, antolakuntzan...)




---

## Energia erkidegoen sustatzailea

---

Energia komunitateak sortzeak lehen-tasuna du eskualdean, energia krisiari aurre egiteko eta herritarrak ahalduntzeko tresna moduan. Eskualdean maila ezberdinetan egin daiteke lan norabide honetan eta elkarlan horren lidergotza eskualdeko Garapen Agentziak eraman beharko luke. Auto-sorkuntza eta energia komunitateak, eskualdeko energia bulegoa, mugikortasun jasangarrirako aukerak eta sarea, CO2 isurketak eta energia-kontsumoa murrizteko proiektuak... Beharrezkoa da herritar, erakunde, enpresa eta adituen arteko kooperazioa sustatzea eta eskualde mailako helburu eta konpromisoak zehaztea.

---

## Goierriago izango gara

---



Pertsonen arteko aukera berdintasunari adina garrantzia ematen diogu herrien artekoari ere: nork bere nortasunari eutsi, baina herritarrei aukera berdinak eskaini ahal izateari. Lortuko badugu, baliabideak partekatzen pausoak eman behar ditugu. Baditugu partekatzen ditugun zerbitzuak eskualdean, eta horietan sakontzen jarraituko dugu: osasunean, kirolean, hondakinen kudeaketan, ur-zerbitzuetan, mugikortasunean, azoketan... Horien esperientzia aberasgarriek duten bulkada baliatu eta beste hainbat alorri helduko diegu legealdi honetan: emakumeen etxea, zaintza-kooperatibak, bizikleten alokairua, kultur programazioa koordinatu...

# Maite duzun Gipuzkoa

EGINGO DUGU.



**Maddalen  
Iriarte  
Okiñena**

Gipuzkoako  
Ahaldun Nagusirako  
hautagaia

Candidata a  
Diputada General  
de Gipuzkoa

*Gipuzkoak dituen  
aukera guztiak  
baliatuko ditugu, inor  
atzean gera  
ez dadin.*

Erronka handiak ditu Gipuzkoak, trantsizio ekologiko zein teknologikoan jauzi bat emateko ordua da. Industriari bultzada berria emango diogu, kalitatezko enpleguaren ikur dena. Doakotasuneranzko trantsizioa egingo duen zaintza sistema osatuko dugu, inor atzean utziko ez duena eta zaindua izateko eskubidea bertutuko duena. Garraio publikoa indartzeko konpromisoa ere badugu.

**Orain bai!**

**ehbildu**

 @MaddalenIriarte

 Maddalen Iriarte Okiñena

 maddaleniriarteokinena

 ehbildu.eus